

# «Herritarrek badakite ez garela abenturazaleak, pausoz pauso goazela»

**Gorka Urtaran** • EAJren Gasteizko alkategaia

Inkestek diotena gorabehera, Urtaranek uste du EAJk «arazorik gabe» irabaziko dituela igandeko hauteskundeak Gasteizen. Berrito alkate bada, gobernu «plural» bat eratzeko prest dago.

**Edume Begiristain** Gasteiz

EAJ hirugarren indarra izan zen duela lau urte Gasteizko udal bozetan, baina, EH Bildu, Ahal Dugu eta Irabaziren babesari esker, alkate izan zen Gorka Urtaran (Gasteiz, 1973). Legealdian, baina, hautsi egin dira ezkerreko alderdiekiko zubiak. Urtaranek EH Bilduren «estrategia alderdikoiari» egotzi dio haustura.

**Udal legealdiaren balantze bat eginez gero, aurreikuspenak bete dituzula uste duzu?**

Bai, zalantzarik gabe. Hasiera oso zaila izan zen, baina, oztopoak oztopo, lortu dugu proiektuak aurrera ateratzea eta hiria hobetzea. Oso balantze positiboa egiten dut.

**Aginteak higitu ala indartu egin zaitu?**

Indartuta atera garela esango nuke. Egia da lau urte hauek ez direla errazak izan; aldaketak ez dira samurrak izaten, eta denbora bat behar dute sendotzeko. Gasteizen aldaketa inportantea gauzatu dugu azkeneko lau urteotan: enplegu gehiago sortu dugu, mugikortasunaren aldeko proiektuak aurrera atera ditugu, AHTaren proiektua adostu dugu Espainiako Gobernuarekin... Gasteizko agendan daude definituta etorkizuneko proiektuak, eta finantzaketa badute.

**Zertan egingo zenuke autokritika?**

Nahiago izango nuke aurrekontu guztiak onartu izan bagenitu aurrenekoa bezala. Niretzat etsigarria izan da EH Bilduk izan duen jarrera. Elkarrekin abiatu genuen bide hau, baina, EH Bilduk ikusi zuenean gobernuak aurrera egiten zuela eta proiektuak onartzen zituela, aldaketaren gurditik jaitsi zen, eta gure kontrako politika abiatu zuen. Hori ez dago ulertzerik. Niri hitza ez betetzea egotzi zidaten, baina errealtatea zen ez



JAIZKI FONTANEDA/FOLIO

zegoela diru sarrera nahikorik proiektu batzuk gauzatzeko.

**Alkatezara eraman zintuzten alderdiek jada ez zaituzte babesen. Zer gertatu da?**

2016an, EH Bilduk bere estrategia alderdikoiak lehenetsi zuen. Ikusi zuenean gobernuak martxan zego-

ela, akordiotik aldentu zen, eta PPrekin estrategia bera partekatu zuen. Estrategia politikoa gaitik hautsi da gure arteko harremana. **Damutu al zaizu 2015ean eragindako apustua?**

Ez, inola ere ez. Harro nago hartutako erabakiaz. Banekien oso era-

baki arrisksutua zela, giro politikoa oso nahastuta zegoelako eta oso zaila zelako alkatez hartzea bostzinegotzirekin. Baina izugarriko lana egin dugu, eta gure konpromisoa erakutsi dugu Gasteizko hiriarekin.

**Inkestek oso lehia estua iragarri dute Miren Larrionen eta bion artean. Zer espero duzu?**

Inkestek diote hor dagoela EH Bildu eta, beraz, kontuz ibili beharko dugula, baina ziur nago gasteiztarrek kontuan izango dutela gure lana. Badakite nolako den gure kudeaketa, lan gardena, zuzena eta gertua egin dugula, eta ziur naiz igandean arazorik gabe irabaziko dugula.

**Larrionek irabaziz gero, haren inbestidura babestuko al zenuke?**

Ez dut egoera hori aurreikusten. Uste dut gasteiztarrek kontuan izango dutela gure lana. Badakite ez garela abenturazaleak, pausoz pauso goazela, eta badakite hiria gure lehentasuna dela.

**«EH Bilduk ikusi zuenean gobernuak aurrera egiten zuela, aldaketaren gurditik jaitsi zen»**

**Alkate bazara, PSE izango da berrito zure lehentasuneko bazkidea?**

Gasteiz plurala da, eta ni gobernu plural baten aldekoa naiz. Horrek esan nahi du alderdi batek baino gehiagok egon beharko luketela gobernuan, PSEk ez ezik beste batzuek ere bai. Ni koalizio gobernuen aldekoa naiz, eta prest nago gobernu plural bat eratzeko.

**Zein da zure hauteskunde programaren proiektu nagusia?**

AHTaren sarbidea Gasteizen. Lau urte hauetan lortu dugu AHTaren sarbidea lurperatua izatea. Horrekin batera, Salburuaren eta Zabalganaren arteko ekobulebarrak sortzea da gure eronka.

**Gasteiz antzokiaren obrak lizitatu berri dituzue. Zergatik lizitatu da hainbeste?**

Oposizioak ez du bereziki lagundu, baina errealtateak erakutsi du gure apustua Gasteiz antzokia aurrera ateratzea zela. Kolektibo euskaltzaleen eta gobernuaren artean lortu dugu aurrera ateratzea.

**Alkate bazara, zer gertatuko da Errekalear auzoarekin?**

Gure asmoa da auzoa husea eta etxebizitza horiek suntsitzea. Okupazioa ez da eredu baliogarri bat, ez duelako bermatzen berdintasun printzipioa. Negoziazioaren bidea agorturik dago, eta okupazioa amaitu behar da.